Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Angeli Telleria

Antzuola, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia

Zintak

ANT-101

- **Proiektua**: Larru ontzea Antzuolan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirresarobe, Asier - Tellabide, Josu
- **Data**: 2006-11-17
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: DVD
- **Kodifikatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

Pasarteak

1. Baserrietan jenerotan ordaintzen zien aitari

- **Erref**: ANT-101/002
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:01:42. **Bukatu**: 00:04:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Aita arotza zen. Elektrikako etxean zegoen aroztegian egiten zuen lan. Baserrian ere altzariak konpontzen eta saltzen aritzen zen. Baserrian ez zegoen bestelako dirurik eta aitari jenerotan ordaintzen zien. Gerraostean gosea eta janzteko arropa faltan izatea ohikoa zen. Dena zegoen errazionamenduan, eta bere amak dirua behar izaten zuen.

2. Eskolara eta josten ikastera

- **Erref**: ANT-101/004
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:05:25. **Bukatu**: 00:06:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Eskolara hamalau urtera arte joan zen. Gero josten ikastera joaten ziren. Gerraostea oso gogorra izan zen errazionamendua tarteko.

3. Gerraren eragina

- **Erref**: ANT-101/006
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:06:27. **Bukatu**: 00:07:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Gerra Zibila oso presente zuen Angelitak elkarrizketa garaian. Eibarko mutil gazte bat zelan fusilatu zuten gogoan zuen. Antzuolako kanposantuan lurperatu zuten mutil hori. Antzuola gerraren ondorioz zigortutako herria zela dio. Beraien etxean lau bat soldadu egoten ziren lotan.

4. Gerraoste gogorra

- **Erref**: ANT-101/007
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:07:39. **Bukatu**: 00:08:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Eskola bukatu ostean josten ikastera edo neskame lanetan joaten ziren. Gerraostean ez zegoen dirurik eta dena zen beharrezkoa. Gero Telleriaren tailerrean hasi zen bera. Neba arto-bolekin aritzen zen jolasean eta ez zuten besterik eta hura ere jan egiten zuten.

5. Burua jaso gabe hamar orduz lanean

- **Erref**: ANT-101/009
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:09:49. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleriaren lantegian hogei emakumetik gora aritzen ziren lanean. Armadarako materiala josten zuten. Gazterik, oraindik umeak zirela, hasten ziren lanean. Gazte denbora gogorra izan zuten, dena falta zuten: jatekoa, arropa... Antzuolan zeuden neska guztiak horrexetan zebiltzan, mutil asko soldadu joanak ziren-eta.

6. Larrutegiko lana eskuz

- **Erref**: ANT-101/011
- **Iraupena**: 0:03:45. **Hasi**: 00:12:15. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria larrutegian ("guarnicioneria") soldaduentzako kartutxerak eta uhalak josten zituzten. Makinak, trokelak, ebakitzen zuen larrua eta beraiek eskuz josten zuten. Hamar orduz aritzen ziren lanean. Angelitaren abizena ere Telleria izan arren ez ei ziren senitartekoak. Eztenarekin zuloa egin eta bi jostorratz erabiltzen zituzten josteko. Makinetan mutilak aritzen ziren; hainbaten izenak aipatzen ditu.

7. Tailerretik etxera eramaten zuten lana

- **Erref**: ANT-101/013
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:16:36. **Bukatu**: 00:17:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria larrutegian ("guarnicioneria") langile asko zeuden. Neskak aritzen ziren josten, mahai bakoitzean lau. Hamar orduz aritzen ziren bertan eta askotan etxera ere eramaten zuten lana. Etxerako lana nahi zuenak eramaten zuen,

baina dirua behar zutenez askok eramaten zuten. Estraperloa zen nagusi eta diru asko horretan gastatzen zuten.

8. Guardia Zibila ogi bila Antzuolara

- **Erref**: ANT-101/014
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:17:58. **Bukatu**: 00:19:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Estraperlo garaian dirua erraz gastatzen zen. Nafarroatik ekartzen zuten jenero gehiena. Guardia zibilak askotan kentzen zien jeneroa; Bergaratik etortzen ziren Antzuolara ogi bila, askotan beraientzat ez zuten izaten ogirik, baina Guardia zibilentzat beti zegoen. Kapa azpian gordetzen zuten ogia.

9. Tailerreko arduraduna gaiztoa zen

- **Erref**: ANT-101/016
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:19:22. **Bukatu**: 00:20:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria larrutegian ("guarnicioneria") Maximo izan zuen arduradun. Lazaro izeneko beste bat ere bazegoen. Erdalduna zen eta oso-oso gaiztoa, burua ere ezin izaten zuten altxa. Lanean hasi zirenean, artean umeak ziren oraindik.

10. Oporraldi bakarrak Antzuolako jaietan

- **Erref**: ANT-101/019
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:23:35. **Bukatu**: 00:24:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Antzuolako jaietan zortzi eguneko oporraldia izaten zuten Telleria larrugintza-lantegian, ez zuten bestelako oporraldirik izaten. Arduradunak beti gizonezkoak ziren.

11. Langile guztiek ez zuten segurua

- **Erref**: ANT-101/021
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:25:45. **Bukatu**: 00:28:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria larrutegiko ("guarnicioneria") langile guztiek ez zuten segururik eta ez zuten kotizatzen. Berak bazuen segurua eta ondorioz, erretiroa kobratzen du; bere ahizpak, ostera, ez. Sasoi hartan ez zegoen egoera hori erregulatzeko ezer, sindikaturik ere ez zuen ezagutu.

12. Tailerrera sagua sartu zutenekoa

- **Erref**: ANT-101/023
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:29:11. **Bukatu**: 00:30:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:
Telleria larrutegiak ("guarnicioneria") bi solairu zituen. Behin emakume batek sagu bat jarri zuen soka batetik atean zintzilik. Barrezka zebiltzala arduraduna etorri zen eta sagua sorbaldatik pasatu zitzaion, baina ez zen konturatu.

13. Lazaro arduradunari "Katakotxa" gaitzizena

- **Erref**: ANT-101/024
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:30:36. **Bukatu**: 00:31:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Lazaro arduradunari "Katakotxa" deitzen zioten gaiztoa zelako.

14. Senarra lankide

- **Erref**: ANT-101/028
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:34:42. **Bukatu**: 00:35:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:
Bere senarrak ere Telleria larrutegian ("guarnicioneria") egiten zuen lan,

trokelean. Antzuolan denak ziren ezagunak eta lehendik ere ezagutzen zuen bere senarra.

15. Kaletarrak erromerietara ez

- **Erref**: ANT-101/029
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:35:55. **Bukatu**: 00:37:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

Laburpena:
Kaleko neskak ez ziren joaten erromerietara, baserritarrak baino ez ziren joaten.

16. Ezkontzerakoan lana utzi

- **Erref**: ANT-101/031
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:37:19. **Bukatu**: 00:39:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Ezkontzerakoan emakumeek lana uztea ohikoa zen. Bera 30 urterekin ezkondu zen eta ez zen gehiago bueltatu. Emakumezko langile guztiak ezkongabeak ziren.

17. Lagun asko Sorazulera lanera

- **Erref**: ANT-101/032
- **Iraupena**: 0:01:39. **Hasi**: 00:39:12. **Bukatu**: 00:40:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Ezkondu aurretik bere senarra Soraluzera joan zen lanera. Gerraostean lana gutxitu baitzen Antzuolan eta asko bertara joan ziren. Sorazulen jornal hobeak zituzten.

18. Aste Santutan jai eta prozesioak

- **Erref**: ANT-101/035
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:43:18. **Bukatu**: 00:45:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:
Ostegun eta Ostiral Santu egunez jai izaten zuten lantegian. Prozesioak zeuden eta horietan parte hartzen zuten. Mutikoak lazareno janzten ziren. Gazte denboran ez ziren elizak irteten: misioak, ejerzizioak, bederatziurrenak... Prozesioak zelakoak ziren azaltzen du.

19. Elizan eta prozesioetan emakumeak aparte

- **Erref**: ANT-101/036
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:45:52. **Bukatu**: 00:47:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Aste Santuko prozesioetan emakumeak aparte joaten ziren, atzetik. Elizan ere emakumeak aulkietan egoten ziren eta gizasemeak bankuetan. Jesarlekuak izendatuta zituzten.

20. Asto moduan egiten zuten lan

- **Erref**: ANT-101/039
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:48:45. **Bukatu**: 00:49:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria lantegian asto moduan egiten zutela lan dio. Lantegitik aldentzearren pozik ezkondu zen. Lan gogorra zen.

21. Lantegirako argizaria beraiek erosi behar

- **Erref**: ANT-101/041
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:50:01. **Bukatu**: 00:50:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Tellerian lantegian larrua josteko hariari argizaria eman behar izaten zioten eta askotan beraiek erosi behar izaten zuten.

22. Lantegian binaka komunera

- **Erref**: ANT-101/042
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:50:52. **Bukatu**: 00:52:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:
Telleria lantegian ez zuten komunera joateko baimenik eskatu behar. Binaka joaten ziren komuna lurpeko solairuan zegoelako eta kurtideriatik pasatu behar izaten zutelako.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-29

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com